

Europa bat-batean

KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA



SARRERA

Badira hogei urte bertsolariak nazioartera salto egin eta kantu inprobisatua duten beste kulturetako inprobisatzaileekin abestu eta topaketak egiten dituztela.

2003an egin zen Donostian, lehenengo aldiz, *Ahozko inprobisazioa munduan* izeneko nazioarteko topaketa **Bertsozale Elkarateak** antolatuta. Lau kontinente eta hamaika herritako kideak etorri ziren gurera. Elkar ezagutzeko, elkarrengandik ikasteko eta bat-batekoari buruzko kontzientzia hartzeko pizgarri izan zen. Aberasgarria oso.

Harrezkeroztik, bertsolariak atzerrian hainbat jardunalditan parte hartu izan duten arren, ez da gurean besterik antolatu. Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuko testuingurua bat-bateko kantua ezagutzera emateko abagune ederra dela iritzita, **Mintzola Ahozko Lantegiak** eta **DSS2016EU**-k elkarlanean, nazioarteko hainbat ordezkari gonbidatu ditugu **Europa bat-batean** izenburupean 2016ko uztailaren 11tik 16ra Donostian gauzatuko den kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketara. Topaketa horren harira, gainera, 2015eko udazkenean jardunaldiak gauzatu ziren Leonen eta Bartzelonan eta orain, 2016ko udaberrian, girotze saioak egingo dira Euskal Herriko hainbat txokotan.

Parte hartuko duten ordezkarien artean, besteak beste, Sardinia, Kurdistan, Galizia, Kanariak, Herrialde Katalanak, Gales, Austria, Zipre, Kuba, Mexiko eta Euskal Herriko inprobisatzaileak izango dira. Horiekin batera, nazioarteko hainbat adituk hartuko dute parte antolatu diren hitzaldi eta mahai inguruetan.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa, gutxiengoan dauden hizkuntzen testuinguruen eta ahozko tradizioaren arteko erlazioa, ezagutzen ez ditugun kantu inprobisatuen deskripzioak eta genero-ikuspegia izango dira **Europa bat-batean** egitasmoaren baitan eskainiko diren hitzaldi eta bat-bateko saioetan landuko diren gai ardatzak.

Mintzola Ahozko Lantegian 2014ko abenduan ekin zitzaion **Europa bat-batean** egitasmoaren antolakuntza lanei. Borondatezko zein soldatapeko kideez osatutako ehun bat laguneko lan taldeari esker gauzatu ahal izango da eta, besteak beste, tokian tokiko eragile eta bertso-eskolen laguntza ezinbestekoa izango da.

EGITARAU OROKORRA

2015eko udazkena:

- Irailaren 25ean eta 26an, jardunaldiak Cerezales del Condadon eta Leon hiriburuan.
- Azaroaren 6an eta 7an, jardunaldiak Badalonan eta Bartzelonan.

2016ko udaberria:

- Apirilaren 16etik 23ra, girotze saioak Euskal Herrian barrena: Bilbo, Hernani, Donostia, Iruñea, Markina-Xemein, Uztaritze eta Aramaio.

2016ko uda:

- Uztailaren 11tik 16ra nazioarteko topaketa Donostian.

PARTE HARTUKO DUTEN ADIERAZPIDEAK

1. Bertsolaritza

- **Hizkuntza:** Euskara
- **Lurraldea:** Euskal Herria
- **Inprobisatzailea:** Bertsolaria
- **Deskribapena:** Euskaraz, errima eta neurri patroï batzuen arabera inprobisatuz abestutako artea da. Kantatzen den pieza bertsoa da eta kantatzen duen pertsona, bertsolaria. Euskal Herrian kokatzen da. Euskararen komunitate horretan, bertsolaritza indartsu dago: Bertso emanaldiak ugariak dira, bertsolarien ezaugarriak adinez, sexuz, jatorriz eta ikasketez, anitzak; transmisio bideak eta jarduera arloak zabalduz doaz; eta gizarte mailan prestigio handia du.
- **Interneteko bideoak:** <http://www.bertsoa.eus>

2 - Repentismo

- **Hizkuntza:** Espainiera
- **Lurraldea:** Kanariak
- **Inprobisatzailea:** Verseador
- **Deskribapena:** Gaztelaniaz inprobisatzen da, eta Kanariar uharte guztietan zehar hedatzen da, lekuaren arabera aldatzen bada ere. Hierro uhartean ditxo gisako bertsoak inprobisatzen dira medaren laguntzaz, baina ezagunak dira ere loak edo lobak, cuartetatan kantatzen direnak. Kanaria Handia, Fuerteventura eta Lanzaroten koplak kantatzen dituzte eta Palman "pique" deitutako ahozko lehiak antolatzen dituzte. Versador, versiador edo verseador deitzen zaie inguru honetako repentismoa lantzen dutenei eta Kubako inprobisazioaren ezaugarri asko ditu: esaterako, inprobisatzeari "punto cubano" ere deitzen zaio eta decimak inprobisatzen dituzte laute eta gitarraren laguntzaz. Ohiko kontua da Kuba eta Kanariar uharteen arteko inprobisatzaileen elkartrukeak gauzatzea.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=decima+decimistas+canarias

3.- Dengbêj

- **Hizkuntza:** Kurduera
- **Lurraldea:** Kurdistan
- **Inprobisatzailea:** Dengbêj
- **Deskribapena:** Kurdueraz kantuaren hitzak berak ondo deskribatzen ditu Kurdistango inprobisatzaileak: "deng" ahotsa da eta "bej" kantatzea. Edertasun handiko hitzak osatzen dituzte eta hainbat gaiei buruz inprobisatzen dute, sarritan, negar-kantu moduan, hildakoei buruz ("stran"). Transmisioa berreraikitze saiakerak badira, eta emakume batzuek ere inprobisatzen dute.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=dengbej+kurdi

4.- Glosa

- **Hizkuntza:** Katalana
- **Lurraldea:** Herrialde Katalanak
- **Inprobisatzailea:** Glosador/a
- **Deskribapena:** Katalanez inprobisatzen da, Katalunia, Balear Uharteetan eta Valentzian. Eremu geografikoaren arabera inprobisatzeko moduak aldatuz doaz: glosa, garrotin, corranda... Transmisio bideak bultzatzen ari dira egun, gazteak inprobisatzen ikasten ari dira, eta gero eta emakume gehiago ari dira kantuan.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=glosadors+or+gloses+or+corrandes+or+garrotins

5.- Regueifa

- **Hizkuntza:** Galiziera
- **Lurraldea:** Galizia
- **Inprobisatzailea:** Reguefeira/reguefeiro
- **Deskribapena:** Galizieraz inprobisatzen da eta Galizian enchoyada deitzen zaie koplak-saioei eta inprobisatzaileei regueifero edo cantadeiro. Neurritz, regueifa zortzi silabako koplak da, eta bat-batekotasun (abiadura) eta erantzuteko gaitasun handia erakusten da, inolako eten edo musika-tarterik gabe. Egun Bergantiños (A Coruña) da regueiferoen bilgune nagusia.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=regueifa+regueifeiros+

6.- Poesia a bolu

- **Hizkuntza:** Sardiniera
- **Lurraldea:** Sardinia
- **Inprobisatzailea:** Cantadori
- **Deskribapena:** Sardinieraz egiten den bat-bateko kantua da, "Gare potiche" ere deritzona. Kantuak, Sardinia uharteak eragindako berezitasun sozio-ekonomikoak, bilakaera historiko-kultural berezia eta ahoz ahoko transmisioa ditu oinarri. Neurri eta egitura dialektikoei dagokienez, inprobisazio mota arruntenak "mutettus*", "ottadas", "sa repentina" eta "mutos" dira. Inprobisazioari ahotsez egiten zaion akonpainamenduan soinu gutural difonikoko "basciu e contra" nabarmentzen da batez ere, eta "launeddas" musika tresna da laguntzaile bezala erabiltzen dena. Gaur egun emakumeak ere hasi dira bat-batean kantatzen.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=gare+poetiche+sarde+improvvisate

7.- Punto cubano

- **Hizkuntza:** Espainiera
- **Lurraldea:** Kanariak, Kuba
- **Inprobisatzailea:** Repentista
- **Deskribapena:** Gaztelaniaz egiten da Kubako kantu inprobisatua, eta Andaluzia eta Kanariar Uharteetako jatorria izanik ere, afrikar musika elementuak barneratuta, berezko generoa da Punto Cubanoa. Egun kantu inprobisatu hau oso bizirik dago Kuban, generazio berriei transmititzeko egitasmoak abian dira eta emakume gero eta gehiago ari dira kantuan.
- **Interneteko bideoak:** https://www.youtube.com/results?search_query=decima+decimistas+cuba+%22punto+cubano%22

8.- Schnaderhüpfel & Gstanzl

- **Hizkuntza:** Bavaria
- **Lurraldea:** Austria, Bavaria
- **Inprobisatzailea:** Schnaderhüpfelsänger (gizonezkoa) / Schnaderhüpfelsängerin (emakumezkoa), Gstanzlsänger (gizonezkoa) / Gstanzlsängerin (emakumezkoa)
- **Deskribapena:** Alemanez, bavaria dialektoan, Austria eta Bavarian (Alemania) kantatzen den kantu inprobisatua da. Inguruaren arabera hainbat izendapen jasotzen ditu ("Gstanzl", "Schnodahaggn", "Trutzliadle", "Pleppaliadle", "Schwatzliadl", "Flausnliadl") baina denak biltzen ditu "Schnaderhüpfel" izendapenak. Lau lerrotako bertsoak dira, gehienetan estribillo batekin lagunduta.
- **Interneteko bideoak:** https://www.youtube.com/results?search_query=Gstanzl

9.- Stomp

- **Hizkuntza:** Galesa
- **Lurraldea:** Gales
- **Inprobisatzaileak:** ez dago adiera jakinik
- **Deskribapena:** Galesez egindako errezitaturako kantu inprobisatua da, arau zorrotzez osatu beharreko bertsoak osatzen dituzte denbora hartuta eta oso ezagunak dira Galesen. Urtero hainbat txapelketa izaten dira eta ezagunenak National Eisteddfod-en egiten dena da. Emakumeen parte hartzea nabarmena da.
- **Interneteko bideoak:** <https://www.youtube.com/user/LiteratureWales>

10.- Tsiattista

- **Hizkuntza:** Greziera
- **Lurraldea:** Zipre
- **Inprobisatzailea:** Tsiattista
- **Deskribapena:** Grezieraz, Zipreko dialektoan, kantatzen dute tsiattistek. Poeta inprobisatzaileek beraien arteko lehiak egiten dituzte, eta biolin edo laudarekin lagunduta kantatzen dute. Formarik ohikoena hamabost silabako bertsoak dira, baina batzuek sei, zortzi edota bederatzi silabetako bertsoak erabiltzen dituzte. Inprobisatzaile gehienak adineko gizonezkoak dira baina egun emakume batzuk ere ari dira. Unescoren Kultur Ondare Ez Materialaren zerrendan jasota dago.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=Tsiattista

11.- Topada

- **Hizkuntza:** Espainiera
- **Lurraldea:** Mexiko
- **Inprobisatzailea:** Trovadora/trovador
- **Deskribapena:** Gaztelaniaz egiten den Mexikoko kantu inprobisatuak herrialdearen lur-eremu handi bat dauka: Nuevo León, San Luis de Potosí, Guanajuato, Querétaro (décima arribeña), Jalisco, Michoacán (décima calentana), Guerrero, Oaxaca, Veracruz (décima jarocho), Ciudad de México, Tamaulipas, Zacatecas, Puebla, Tabasco, Yucatán. Era berean, bertako inprobisazioak hamaika modu ezagutzen ditu: décima, quintilla, kopla, sextilla, gehienak zortzi silabako neurrian, seikoan bestela, hainbat musika-tresnaren laguntzarekin (gitarra, viguela, arpa, jarana, requinto, zaldi-irrintzia) eta kantatzeko mila moduz. Transmisio bideak eraikitzen ari dira eta egun inprobisatzaileen artean emakumeak badabiltza eta gazteei ere irakasten zaie.
- **Interneteko bideoak:**
https://www.youtube.com/results?search_query=topada+de+poetas+huapanguero+huapanguera

HELBURUAK

Mintzola Ahozko Lantegiak Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin elkarlanean garatutako egitasmoa da ***Europa bat-batean***. Munduko beste kantu inprobisatuak ezagutzea, adierazpide ezberdinen arteko zubiak eraikitzea eta bertsolaritza gure mugetatik kanpo ezagutaraztea da egitasmo honen helburua.

Mintzola Ahozko Lantegia Bertsozale Elkarteak bultzatutako egitasmoa da. Mintzola 2008an sortu zen. Bertsolaritzatik abiatuta, ahozko tradizioaren gaineko hausnarketa eta ahozkotasanari loturiko diziplinen arteko elkarreragina bultzatzea du helburu, gizartearen premia berriekin uztartuz eta, era berean, euren izaera indartuz. Horretarako, bertsolaritzaren ikerketan sakontzen eta, horietan landutako hausnarketak gogoan, euskaraz diharduten beste ahozko kultur sorkuntzetara eta nazioarteko beste kantu inprobisatuetara zubiak eraikitzen dihardu Mintzolak, beste erakundeekin elkarlanean.

Hala, bere egitekoa hiru ildotan banatzen da:

Bertsolaritzaren Ikertegia

Ahozko Elkargunea: Euskarazko ahozko kultur sorkuntzan ari diren genero bizen arteko elkarlana sustatzeko gunea da. Elkarguneak ahozko genero bizi guztien topaketa eta elkar-ezagutza bultzatzeko laborategi bat izan nahi du euskararen ahozko kulturgintzaren artikulazioan laguntzeko.

Kulturarteak: Mintzolak, Kulturarteak lan ildoaren bidez, bertsolaritza mundu mailan ezagutarazi eta Euskal Herrian munduko beste kantu inprobisatuen berri ematea du helburu, kantu inprobisatuen arteko elkartrukea sustatu eta euskara munduko plazara ateraz. Horretarako nazioarteko topaketak antolatzen ditu eta, era berean, nazioartean besteek antolatutakoetan ere parte hartzen du. ***Europa bat-batean*** norabide horretan antolatutako egitasmoa da.

Xenpelar Dokumentazio Zentroak asebetetzen ditu Ahozko Lantegiaren hiru ildo haueko dokumentazio beharrak.

2016KO UDABERRIA

Apirilaren 16tik 23ra, Kurdistango, Sardiniako eta Euskal Herriko inprobisatzaileak kantuan.

Bilbon, Hernanin, Donostian, Iruñean, Markina-Xemeinen, Uztaritzen eta Aramaion.

Saioetan adierazpide bakoitzeko bina inprobisatzailek hartuko dute parte; baita musikariek ere adierazpideak hala eskatzen duenean.

Inprobisatzaileen jarduna jarraitu ahal izateko saioak euskarara itzuliko dira. Itzultzaile lanetan arituko dira Irati Majuelo, Miren Ibarluzea, Maddalen Arzallus eta Karlos Aizpurua.

Kurdistán

Dengbêjak, inprobisatzaile kurduak: Adnan Omar eta Brivan Ibish.

Sardinia

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni, Paola Dentoni

Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Antolatzaileak: Mintzola Ahozko Lantegia, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua

Tokian tokiko antolatzaileak: Loraldia, Hernaniko Udala, EHUko Gipuzkoako Errektoreordetzako Hedakuntza, Iruñeko Udala, Markina-Xemeingo Udala, Euskal Kultur Erakundea eta Arabako Foru Aldundia.

EGITARAUA

Apirilaren 16an, larunbatean, BILBO

12:00etan Azkuna Zentroko auditorioan

Bertsolariak: Igor Elortza eta Ane Labaka

Aurkezlea: Maite Berriozabal

Sarrerak: Azkuna Zentroko informazio gunean, 10 eurotan (AZ txartelarekin, 8 eurotan). Bestela, sarrerak@loraldia.eus

Antolatzailea: Loraldia

Apirilaren 17an, igandean, HERNANIN

19:00etan Biteri kultur etxean

Bertsolariak: Arrate Illaro eta Maialen Lujanbio

Aurkezlea: Maite Berriozabal

Sarrerak: Leihatilan, 7 eurotan

Antolatzailea: Hernaniko Udala

Apirilaren 19an, asteartean, DONOSTIA

19:00etan EHUKo Ignacio Maria Barriola Zentroko (aularioa) erabilera anitzeko gelan

Bertsolariak: Oihana Bartra eta Sustrai Colina

Aurkezlea: Haritz Casabal

Ikasle ez direnentzat ere zabalik!

Dohainik, eskuratu gonbidapenak aurrez gi-kultura@ehu.eus helbidean

Antolatzailea: UPV/EHUKo Gipuzkoako Errektoreordetzako Hedakuntza

Apirilaren 20an, asteazkenean, IRUÑEA

19:00etan Zentral aretoan

Bertsolariak: Miren Amuriza eta Julio Soto

Aurkezlea: Haritz Casabal

Dohainik

Antolatzailea: Iruñeko Udala

Apirilaren 21ean, ostegunean, MARKINA-XEMEIN

19:00etan Kontzejupean, eta gero inprobisatzaileekin poteoa herrian

Bertsolariak: Nerea Ibarzabal eta Jon Martin

Aurkezlea: Itxaso Paia

Dohainik

Antolatzailea: Markina-Xemeingo Udala

Apirilaren 22an, ostiralean, UZTARITZ

20:00etan Lapurdi Gelan

Bertsolariak: Miren Artetxe eta Maddi Sarasua

Aurkezlea: Iker Iriarte

Sarrerak: Leihatilan, 5 eurotan

Antolatzailea: Euskal Kultur Erakundea

Apirilaren 23an, larunbatean, ARAMAIO

19:00etan kultur etxean

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Xabi Igoa

Aurkezlea: Itxaso Paia

Sarrerak: Leihatilan, 5 eurotan

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

2016KO UDA

Nazioarteko Topaketa uztailaren 11tik 16ra.

**Goizez jardunaldi akademikoak Miramar Jauregian
Arratsaldez, bat-bateko saioak Donostiako hainbat gunetan**

JARDUNALDI AKADEMIKOAK

**Uztailaren 11tik 15era, goizeko 9:00etatik 13:30etara, jardunaldi akademikoak
Miramar Jauregian.**

Hitzaldiak eta mahai inguruak

Nazioarteko goi mailako adituek kantu inprobisatuari buruzko ikerketak eta gogoetak plazaratuko dituzte.

Mundu guztiko ordezkariak bilduko dira, jorratuko diren gaietan aditu entzutetsuak direnak. Besteak beste, Herrialde Katalanak, Austria, Murtzia, Zipre, Brasil, Kuba, Mexiko, Sardinia, Euskal Herria, Karelia, Estatu Batuak, Galizia eta Gales-eko kantu inprobisatuari buruz ariko dira. Ikus taula 13. orrialdean.

Egun bakoitzak hari jakin bati jarraituko dio

- Astelehenean, kantu inprobisatu ezberdinen inguruko xehetasunak azalduko dituzte hizlariak.
- Asteartean, adierazpideen belaunaldiz belaunaldiko transmisioaz hitz egingo dute.
- Asteazkenean, generoa izango da ardatz.
- Ostegunean, kantu inprobisatuek duten garrantziaz ariko dira.
- Ostiralean, hizkuntza gutxituen inguruan ariko dira parte-hartzaileak.

Filmak eta argazki erakusketak

Hitzaldiak eta mahai inguruak ez ezik, kantu inprobisatuarekin edo inprobisatzaileekin zerikusia duten filmak eta argazki erakusketak ikusteko aukera izango da Miramar Jauregian bertan.

Nori zuzendua

Gai aldetik duen aniztasuna ikusirik, hartzaile mota zabalari zuzendutako jardunaldiak dira: kantu inprobisatuari buruzko interesa duten zale, sortzaile eta adituentzat ez ezik, belaunaldiz belaunaldiko transmisioan lanean ari diren irakasleentzat, genero perspektibari buruz interesa duen ororentzat eta hizkuntza gutxituen inguruan kezka duten guztientzat oso jardunaldi aberasgarriak izango dira. Parte hartu nahi dutenei erraztasunak emate aldera, bost eguneko matrikula edo, nahi izanez gero, eguneko egunekoa egin ahal izango da.

Izen ematea

Izen ematea zabalik da jada. Jardunaldiota parte hartzeko izen ematea uztailaren 6ra arte egongo da zabalik EHUko Uda Ikastaroen webgunean (www.uik.eus atarian). Egun guztietan parte hartu nahi duten interesdunek 80 euroan izango dute matrikula eta egun bakarrera edo batzuetara joan nahi dutenek, 25 euroan eguneko.

Jardunaldi akademikoak Mintzola Ahozko Lantegiak; Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak eta UPV/EHU Uda Ikastaroak elkarlanean antolatu dituzte.

EGUNA	Uztailak 11 - Astelehena	Uztailak 12 - Asteartea	Uztailak 13 - Asteazkena	Uztailak 14 - Osteguna	Uztailak 15 - Ostirala
Eguneko GAIA	<i>Kantu inprobisatuak</i>	<i>Kantu inprobisatuaren TRANSMISIOA</i>	<i>Kantu inprobisatua eta GENEROA</i>	<i>Kantu inprobisatuaren GAURKOTASUNA</i>	<i>Kantu inprobisatua eta HIZKUNTZA GUTXITUAK</i>
9:00- 9:45	<i>Cruïlla de camins: tradició i modernitat en la cançó improvisada dels Països Catalans</i> Josep Vicent Frechina	<i>El Punto: formas de transmisión en Cuba, saberes y significados asociados a su práctica cotidiana</i> Patricia Tápanes	<i>Bertsoa bizitoki. Hitzaren arkitekturak eta generoaren hertsadurak</i> Jone Miren Hernandez	<i>Bertsolaritza, Gizateriaren ondare ez materiala</i> Joxean Muñoz (EJ)/ Andoni Egaña (Mintzola) / Begoña Guzmán (Unesco Etxea)	<i>Improvisación oral: ferramenta de normalización lingüística</i> Marta Souto
9:45-10:30	<i>"Gstanzln" - improvised verse singing in Austria</i> Thomas Nussbaumer	<i>Una experiencia de transmisión del huapango mexicano</i> Rebeca Limón	<i>Female vocality and performative efficacy in the Finnish-Karelian itkuvirsi</i> Elizabeth Tolbert	<i>What is oral about poetry?</i> Ruth Finnegan	<i>Playing it by Ear: Impromptu Welsh-language Poetry</i> Eurig Salisbury
11:00-11:45	<i>El trovo cartagenero desde sus orígenes hasta la era de la globalización</i> Jose Sanchez Conesa	<i>Kultur-ekosistema sortzeko estrategia, bertsolaritza garaikidean transmisioa ulertzeko gako</i> Harkaitz Zubiri	<i>Hip Hop feminism and improvisation</i> Treva Lindsey / Brittney Cooper	<i>Multivocal Poetic Discourse Emphasizing Improvisation</i> Anthony Judge	<i>Sentitu, pentsatu, esan. Bertso-eskola, gazteak, eta hizkuntza portaerak</i> Miren Artetxe
11:45-12:30	<i>The Cypriot voices</i> Georgios Siaxiate	<i>Haurren lehendabiziko bertso eskola haiek</i> Arantzazu Loidi eta Jon Sarasua	<i>Gender and improvised performance</i> Katie Duck	<i>Ahozko tradizioen gaurkotasuna: John M. Foley eta Oral Traditionen omenez</i>	<i>Glosa, vivència i ús de la llengua en el marc escolar</i> Albert Casals
12:45-13:30	<i>Les chants improvisés par les poètes du Nordeste brésilien : tradition, urbanisation, expansion, animation d'un territoire</i> Thierry Rougier	<i>Glosadors filma</i> Roser Texido	Mahai-ingurua <i>Emakume inprobisatzaileak munduan</i> Moderatzaile: Ainhoa Agirreazaldegi	<i>Kulturartea Maparen aurkezpen ekitaldia</i>	Mahai-ingurua: <i>Kantu inprobisatua eta hizkuntz gutxituak</i> Moderatzaile Pablo Suberbiola
13:30-13:45	<i>Bertsolaritza eta irudia erakusketaren aurkezpena</i> Beñat "Krolem"	<i>Bertsolaritza eta irudia erakusketa</i> Edozein tenoretan ikusgai			

BAT-BATEKO SAIOAK

Programa akademikotik kanpo, ikastaldiak iraungo duen egun guztietan kantu inprobisatuen nazioarteko ikuskizunez gozatzeko aukera izango da.

Ikuskizunak, 6 guztira, ilunabarrean izango dira, eta bertan **Kuba, Mexiko, Herrialde Katalanak, Gales, Austria, Zipre eta Euskal Herriko** inprobisatzaileek hartuko dute parte.

- Uztailak 11, astelehena, 19:00etan, Donostian, **portuan**
- Uztailak 12, asteartea, 19:00etan, Donostian, **DSS2016k Easo kalean duen egoitzan**
- Uztailak 13, asteazkena, 19:00etan, Donostian, **Tabakaleran**
- Uztailak 14, osteguna, 19:00etan, Donostian, **alde zaharrean**
- Uztailak 15, ostirala, iluntzean, **Oñatin**
- Uztailak 16, larunbata, 19:00etan, Donostian, **Kursaaleko areto nagusian**


Saio bakoitzean lau bat adierazpide ezberdinetako inprobisatzailek hartuko dute parte eta azkeneko egunean guztiak elkartu eta jaialdi berezia eskainiko dute Kursaalen.

Uztaileko egitarau zehatza ekainean aurreratuko da.

IRUDIA

Mirari Sagarzazu ilustratzaile oñatiarrak garatu du **Europa bat-batean** egitasmoaren zabalkundean erabiliko den irudia. Kolore aniztasunak eta erabilitako teknika jolastiak kantu inprobisatuak munduan duen aniztasuna eta ahozko tradizioaren funtzio sozial eta ludikoa eman nahi ditu aditzera.

BIBLIOGRAFIA:



Ahozko inprobisazioa munduan topaketak (Donostia, 2003-11-3/8)

Argitaratzailea: Donostia : Euskal Herriko Bertsolari Elkarte, 2004

ANTOLATZAILEAK



TOKIKO ANTZOLATZAILEAK

2015ko udazkenean



2016ko udaberrian



2016ko udan



HEDABIDE LAGUNTZAILEAK



 **ARGIA**

berria

EL DIARIO VASCO

Notiziario
Gipuzkoa
Zer irakurri, hura izan

 **eitb**

 **euskadi
irratia**

 **amaika**
ikusteko, bizitzeko


gaztezulo

 **hala bedi**
irratia



 **tolosaldeko
ataria**

EUROPA BAT-BATEAN
KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

GIROTZE SAIOETAN AZKEN UNEKO ALDAKETAK

Apirilean Euskal Herriko hainbat puntutan gauzatuko diren girotze saioetan parte hartzekoak ziren bi inprobisatzaile kurduak ezin izan dute Turkiatik etortzeko bisa eskuratu.

Alemanian bizi den Zinar Ala inprobisatzaile kurduak ordezkatzeko ditu saio guztietan, Kurdistango ahozko tradizioren erakustaldia eskainiz.

Inprobisatzaile kurdu bakarra izango dela kontutan hartuz, Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak izango dira Bilbo, Hernani, Donostia eta Iruñeko saioetan.

Hau izango da, beraz, behin betiko egitaraua:

Apirilaren 16an, larunbatean, BILBOn

12:00etan Azkuna Zentroko auditorioan

Bertsolariak: Igor Elortza eta Ane Labaka

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Glosadoreak, Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak: Christian Simelio eta Anais Falco. Musikaria: Gerard Diez.

Aurkezlea: Maite Berriozabal

Sarrerak: Azkuna Zentroko informazio gunean, 10 euroan (AZ txartelarekin, 8 euroan). Bestela, sarrerak@loraldia.eus

Antolatzailea: Loraldia

Apirilaren 17an, igandean, HERNANIn

19:00etan Biteri kultur etxean

Bertsolariak: Arrate Illaro eta Maialen Lujanbio

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Glosadoreak, Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak: Christian Simelio eta Anais Falco. Musikaria: Gerard Diez.

Aurkezlea: Maite Berriozabal

Sarrerak: Leihatilan, 7 euroan

Antolatzailea: Hernaniko Udala

Apirilaren 19an, asteartean, DONOSTIA

19:00etan UPV/EHUKo Ignacio Maria Barriola Zentroko (aularioa) erabilera anitzeko gelan

Bertsolariak: Oihana Bartra eta Sustrai Colina

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Glosadoreak, Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak: Ferriol Macip eta Mireia Mena. Musikaria: Marcel Marimon.

Aurkezlea: Haritz Casabal

Ikasle ez direnentzat ere zabalik!

Dohainik, eskuratu gonbidapenak aurrez gi-kultura@ehu.eus helbidean

Antolatzailea: UPV/EHUKo Gipuzkoako Errektoreordetzako Hedakuntza

Apirilaren 20an, asteazkenean, IRUÑEA

19:00etan Zentral aretoan

Bertsolariak: Miren Amuriza eta Julio Soto

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Glosadoreak, Herrialde Katalanetako inprobisatzaileak: Ferriol Macip eta Mireia Mena. Musikaria: Marcel Marimon.

Aurkezlea: Haritz Casabal

Dohainik

Antolatzailea: Iruñeko Udala

Apirilaren 21ean, ostegunean, MARKINA-XEMEIN

19:00etan Kontzejupean, eta gero inprobisatzaileekin poteoa herrian

Bertsolariak: Nerea Ibarzabal eta Jon Martin

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Aurkezlea: Itxaso Paia

Dohainik

Antolatzailea: Markina-Xemeingo Udala

Apirilaren 22an, ostiralean, UZTARITZE

20:00etan Lapurdi Gelan

Bertsolariak: Miren Artetxe eta Maddi Sarasua

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Aurkezlea: Iker Iriarte

Sarrerak: Leihatilan, 5 euroan

Antolatzailea: Euskal Kultur Erakundea

Apirilaren 23an, larunbatean, ARAMAION

19:00etan kultur etxean

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi eta Xabi Igoa

Cantadoriak, inprobisatzaile sardiniarrak: Simone Monni eta Paola Dentoni. Ahots laguntzaileak: Stefano Cara eta Michele Deiana

Denbeja, inprobisatzaile kurdua: Zinar Ala

Aurkezlea: Itxaso Paia

Sarrerak: Leihatilan, 5 euroan

Antolatzailea: Arabako Foru Aldundia

PRENTSA KABINETEA

Mintzola Ahozko Lantegia – Komunikazioa
komunikazioa@mintzola.eus

Estibalitz Esteibar Iriondo: T. 605 717 488
Amaia Goikoetxea Azpeitia: T. 688 818 852

INFORMAZIO OSOA:

www.europabatbatean.eus

SARE SOZIALETAN HEDATZEKO

@mintzola | @DSS2016

#EU1_1ean | #kulturartea